

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Esteban Garciarena Belaunzaran

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1929-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Azpilleta baserrian jaioa. Seme bakarra; gurasoak adinekoak ziren bera jaio zenean eta. Gurasoak biak Berastegikoak zituen. 11 urterekin kolegiara joan zen Oronozera eta bost urte egin zituen bertan. Gaztetan osaba-izeben dendan aritu zen lanean. 33 urterekin ezkondu zen. Berea izan zen laugarren kotxea herrian. Geroago kamioiarekin pentsu-banaketan egin izan zuen lan urte askoan. Oilo-granja ere izan zuen.

Zintak

BRS-002

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Diaz, Josu

BRS-003

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Familia osatzeko garaiak

- **Erref:** BRS-002/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:06. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, 9-10 urte zituen. 11 urterekin hasi zen eskolan. Seme bakarra zenez, arreta handia ematen zioten. Bere emaztea nola ezagutu zuen azaltzen du. 33 urterekin ezkondu zen.</p>

Transkripzioa

- Asike ni gerra hasi zenen nittun ee... zazpi urte. Ta geo, ez jaio nintzenen zazpi urte, geo gerra hasi zunen nittun ee... beatzi urte, beatzi-hamar urte, “tres años más, siete que tenia y tres”, zazpi ta hiru, hamar urte. Ta geo hamikatan, hamika urte nittunen kolejoan sartu nindduen. Ni seme bakarra nintzen ta...
- Orduan hasi ziñan lehenbizikoz eskolan?
- Bai, bai, hemen ibiltzen nintzen e? Baiño, nei seme bakarra nintzen ta jaiotza ezkerro ya niñera're ba nun, niñera nun, bai. Nere aitte Frantzin eondue zan ta oso berandu ezkontdue zan “calculo yo que tendria los 47 años, el padre”
- Zu jaio ziñanean?
- Ni jaio nintzenen. Ta ama, berriz, izango zittun “los cuarenta y cuatro o cuarenta y cinco o así”, asike txiripatikan jaioa naiz ni, txiripatikan. Ta geo, klaro, ordun esnerik eta ez zan izaten, ta joaten nintzenian horko baserri batera eamaten nindduen, amona haundi bat zan hue ta geo haren alabakin ezkontu nintzen. Ta hara joaten nintzen esnea edatea, ta “en fin” geo haren alabakin ezkontu nintzen “al cabo del tiempo”, ni're oso goiz ez bainintzen ezkontu. “Y yo” ezkontu nintzen nittula, zenbat urte nittun nik ordun? Urte nittun ur... zea “mil novecientos”, jesukristok bezela, e mil...
- Hogeita hamahiru urtekin.
- Hogeita hamahiru urtekin.

2. Eskolan hasi zenekoa

- **Erref:** BRS-002/003
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

11 urterekin eskola hasi arte, plazan ibili zen, baina beti maisu desberdinekin. Asko eskertzen du kolegioan joan izana.

Transkripzioa

- Esan duzu kolejiora hamaika urtekin.
- Bai, bai, hamika urtekin, baiño hamika urte bitarten hemen ibilli nintzen.
- Hemen plazan?
- Hemen, bai, plazan, bai. Baiño ordun maisuk'e badakizu maisu're gutxi izaten ziren ta, zea, oso maiz kanbiatzen ziñan, ze beti maisu diferentekin izaten giñen.
- A bai?
- Ta ez gendun. Baiño nik gauzik hobena egin zidaten, gurasoei eskerrak ematen dizkiet kolejiyoan sartu nindduelako. Ta han ikasi nun nik beste menden nola egoten zan, ta nola maitzen zan. Ta geo gaiñea urtek'e txarrak tokatu zien gerra ondoa, gerra ondoa zan, ta kolejioa nik hoi detaille hok kontatuko dizkizut...

3. Eskolako jantokian janaria falta zenekoa

- **Erref:** BRS-002/004

- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:57. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gerraostea zen eskolan zegoenean, eta jantokian janaria falta zenez, etxetik eraman behar izan zuten janaria, bestela eskola lehenago bukatu behar izango baitzuten. Jantokian bi zatitan banatuta zeuden. Eta beste zatikoek, uraren bila joateko aitzakiarekin, janaria soberan ote zeukaten galdetzera etortzen zitzaizkien.

Transkripzioa

- Han kolejioan gogoatzen naiz komedorea: ni hamaika urtekoa nitzen ta nire kidekoak'e asko zien, ta geo beste batzuk haundigoak. Ta komedore bat izaten zan, baiño bi parte egiñe. Ta gogoratzen naiz urte baten, jana palta zeatzeko ta [...] babarruna atera itten gendunai eskatu ein zion kolejioa ya bi hillabete hillabete falta zanen itxi ein beharko zuela, ez zala, ez zuela janik billatzen.

- Etxetik ekartzeko.

- Bai ta emateko ta halaxe eman gendun, zeatik hemengo zelai hau dena oain berde-berde dao. Hemen dena artoa, garie, patata, denatatik itten zan, ez zan berdeik ez zan izaten hemen; ta geroztik gauzek kanbiatu dia oso. Ta urte haietan ba mixeria asko, ta gogoatzen naiz han kolejioan komedore hartan alderdi baten, bueno komedore bat baiño alderdi baten haundik egoten ziren ta beste baten ttikik. Ta ttikin zeran egoten zan itturri bat zegoan ta zaharrak etortzen... "aizu, zea sobratu al zazue?". Konturatu zazu, sobran bille, ta huren aitzakiekin etorri ta sobrak ta sobrak ematen giñezkien geo, sobratzen zitzaizkigunak. Ta hoi ere holaxeko boillo txiki batzuk lauentzako ta kabezaik botaik ta gora iyo beharren behera eroritzen ziren. Bai, bai, zerak, ez dakit ze izena zuen, ez dakit, ez naiz gogoratzen, oain ez zait etortzen izena. Ba holako bizimodue eman [...] ni.

4. Ezkondu arteko bizitzaren laburpena

- **Erref:** BRS-002/005
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Kolegioan sartu zen, maristetan. Gero soldadutzatik libratu zen, aita edadetua zelako. Ikasketa onak izan ditu, eta erdaraz egin izan ditu. Horregatik gustatzen zaio gehiago erdaraz hitz egitea. Kolegioa eta gero, kotxea erosi eta ezkondu egin zen.</p>

Transkripzioa

- Ta geo kolejioan sartu nintzen ta...
- Kolejioa nun? Nun zeon?
- “En Mugaire, Oronoz-Mugaire con Maristas, alli aprendi...”
- Marianistena?
- Maristas. Bai, ta han ikasi nun nik garroten zer zan soldaduska. Geo soldaduska esaten zuen geo soldaduskako denbora etorri zan, ta nik aitte zahartue nun, ta soldaduska libre atera nintzen, ta aittari esaten nion: “baiño zeatik ni soldaduskatik libre?” Ta “zeatik esaten dezu hoi? Gaizki bizi al zera?”
- “Ez”, baiño nik nittun etxean gurasoak, ta geo nittun beste hiru izebak, bi izeba ta osaba bat, ta haikin gaizki etortzen nintzen. Haik denda zuen, ta nik, nik hemezortzi urtetako “titulo profesor mercantil” banun, asike nere denboran estudioak onak izandu dittut nik. Horregatik erderaz gehien gustatzen zat mintzatzea euskeraz baiño. Baiño urte haik joan ziren, ta ze esatera nijoan, ahaztu itten baitzaizkit.
- Maristekin, gogorak ziran Maristak?
- Bai, bai, bai, geo beste kolejioa, geo ezkondu nintzen, urte nittun ezkondu nintzenen kotxe berria erosi nun, ta joan nintzen zeara, ordun ezkondu nintzen urte hartan.

5. Autoarekin anbulantzia-lanak egiten

- **Erref:** BRS-002/006
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Autoa erosi zuenean, ez zegoen anbulantziarik. Eta berak egin behar izan zuen zerbitzu hori. Berastegiko 4. autoa izan zen berea.

Transkripzioa

- Kotxea primaberan ekarri ta esango dizut kotxe harekin ze pasatzen zitzatan. Kotxea “citroen cuatro chapas” esaten zien haietakoa gendun, nun nik. Eta hemen ordun anbulantzik eta ez zan, ta beti batek ematen zittun kotxe bat bazan, ta harek ematen zittun. Ta “nik [...] kotxe “cuatro chapas” izango det, baiño hemendik aurrera lan hau dena hitzako” ta. Baiño ordun’e mangoneo izaten zan. Hemengo atzena ein zun serbizioa nere kinto lagunea, ta haren semearena eingo zun, “bueno, hemendik aurrera serbizio denak hitzako”. Ta hala, ta eman zidan, bueno, hau ordun, klaro, anbulantzik ez zan ta serbizio “ahí” ta han paper bat betetzen zan han, ta paper harekin gero kobratu itten zendun. Ta ni astero joaten nintzan asten bi aldiz igual hemengo laugarren kotxea zan Berastegin.

6. Gidabaimena atera zueneko

- **Erref:** BRS-002/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Gidabaimena non atera zuen azaltzen du. Gidatzen ikasteko izan zuen pasadizoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta karneta ateratzea're jon nintzen zeara, zeako aldapea, eee, klinika ez, ze izena du zea horrek? "Jolín, el anbulatorio aquel que está arriba ahora", ze izena dun Donostin... Bueno residentzia, residentzia, ta han aldapan geatu ta joan nintzen arkitek injenieroak esan zidan, "bueno oain geratu hau ta arrankatu zak". Ta "ui, zea, josus!". Ta, "ze pasa zak, gaizki jarri al haiz?" "Ez, ez, ez det sekula ein nik hoi". Kotxen hemendik Leitzea kotxe zahar batekin joaten nintzen lagun batenakin ta...

- Baiña hemen aldapa gutxi...

- Bai, ta baiña aurrera joan ta buelta eman ta juxtu-juxtu ez nekin ta "bueno, ez al dek...", "Nik ez baidet hau behin'e ein", ta "ez al dezu behin'e egin? Ez? Enbragiai utzitakoan frenori utzi iozu ta ikusiko dezu ze earki". Ta itten nun, ta bai zea, ez nion, frenoari uzten nion baiña enbragei ez ta atzeraka ta [...] "Ez ditela karnetik emango esaten ez zia ba hola!" ta... Bueno in nun, hirugarrengoan eo laugarrengoan in nun, ta hala karneta atera nun...

7. Madrildik bueltan

- **Erref:** BRS-002/009
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Madrila hegazkinez joan zen. Autoz itzuli zen, eta argia izorratu zitzaion Gasteiz inguruan zegoela. Guardia zibilak salaketa jarri zion, baina beste arrazoi batengatik, ordea.

8. Nola ikasten zuten gidatzen

- **Erref:** BRS-002/010
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Gerora, kamioia gidatzen ikastera joan zen, eta berekin batera emaztea, autoa gidatzen ikastera. Autoeskolako irakasleari buruz hitz egiten du. Gidabaimena ateratzeko azterketa baino lehen, norbere kontura ikasi behar izaten zen kotxea gidatzen.

9. Semei emandako heziketa

- **Erref:** BRS-002/015
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:18:41. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ezkonduta, eta bi seme izan zituzten. Handik urte gutxira, alargun geratu zen. Semeak kolegioan sartu zituen Lekarozen.</p>

10. Soroko lanak oporretan bakarrik

- **Erref:** BRS-002/019
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:20:46. **Bukatu:** 00:21:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Soroko oporretan bakarrik egiten zuen lan, urtean zehar kolegioan egoten baitzen ikasten. Bere familiaren lursailak mendiak ziren gehienbat.

11. Anbulantzia-lana kobratzeko arazoak

- **Erref:** BRS-002/020
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:21:39. **Bukatu:** 00:22:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Anbulantzia-lanak egin zituenean, kobratzeko izandako arazoak kontatzen ditu.

12. Aitareneko txarra

- **Erref:** BRS-002/026
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:27:23. **Bukatu:** 00:28:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Gurasoak Berastegikoak ziren, eta aitak urte askoan zehar Frantzian egin zuen lan kortse-fabrika batean. Han izandako pasadizo bat kontatzen du.

13. Gerra hastean, aita nola salbatu zen

- **Erref:** BRS-002/027
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra hasi zen egunean, aita nola salbatu zen kontatzen du. Gerora, aita salbatu zuen gizon hura hil egin zuten. Gaur egun, haren semea herrira maiz joaten da.

14. Gerra garaiko kontu batzuk

- **Erref:** BRS-002/030
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:33:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Gerrako urte batean, elurte handia egon zela gogoratzen du. Soldaduak kanpin-dendatan egoten ziren.

15. Gerra bukatzean, kolegiara

- **Erref:** BRS-002/031
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:33:31. **Bukatu:** 00:34:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Gerra bukatu zenean, kolegiara joan zen. Orduan ezin izaten zuten kolegiotik maiz itzuli etxera. Sufritzen ikasi zuen kolegioan.</p>

16. Pentsu-banatzaile

- **Erref:** BRS-002/036
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:39:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lanean autonomo moduan ibili zen pentsua banatzen. Nola hasi zen lan horretan azaltzen du, eta zer fabrikarekin egiten zuen lan kontatzen du. Negozioa egitea nola lortzen zuen azaltzen du.

17. Kolegioko ohiturak

- **Erref:** BRS-002/043
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>Kolegioan, mailaren arabera bereizten zituzten. Goizean goiz mezara joaten ziren egunero, eta gero ikasi egiten zuten. Jolas-ordua ere izaten zuten. Eta arratsaldean berriro ikastera. Ostegun eta igandetan izaten zuten libre, eta orduan kalera irtetea zeukaten. Fraideek jakin gabe, gozokiak erosten zituztenekoa kontatzen du.</p>

18. Euskararekiko jarrera

- **Erref:** BRS-002/047
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:51:14. **Bukatu:** 00:52:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Klase guztiak erdaraz izaten ziren. Orain erdaraz gusturago aritzen da. Txikitan etxean ikasi zuen erdaraz, baina lagunekin euskaraz egiten zuen. Kolegioan euskaldun gutxi ziren.

19. Euskaldunekin ulertzeko arazoak

- **Erref:** BRS-002/050
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:53:47. **Bukatu:** 00:55:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Kolegioan Gipuzkoako jendea ere izaten zen. Haiekin ere erdaraz hitz egiten zuen. Kolegioan Markina, Oñati, Azpeitikoak... zeuden. Denek batera bazkaltzean, ezin izaten zuten elkar ulertu. Baina denek ulertzen zioten berari.

20. Beste herrietako euskararekiko aldeak

- **Erref:** BRS-002/052
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Hizkera garbia Tolosa ingurukoa dela esaten du. Alde handiagoa dago Leitzako euskararekin, Tolosakoarekin baino. Hala ere, erdaraz gusturago egiten du berak. Leitza aldean Gipuzkoan baino azkarrago hitz egiten dute.

21. Parrandazalea

- **Erref:** BRS-002/053
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:59:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Parrandazalea zela esaten du. Festa batetik etxera itzultzeko zer egin behar izan zuen azaltzen du.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com